

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/05/12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak

Erref.: 8/2008

Gasteizen, 2008ko maiatzaren 12an.

Hauek batzartu dira: Carlos Palao Taboada jauna, presidentea, eta Isaac Merino Jara jauna eta Fernando de la Hucha Celador jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeko kideak, Itunaren Batzorde Mistoaren erabakiz izendatutakoak, 2007ko uztailaren 30eko saioan. Izendapen hori irailaren 5eko EHA/2603/2007 Aginduaren bidez (BOE, 2128. zk., 2007ko irailaren 11koa) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko irailaren 27ko aginduaren bidez (EHAA, 204. zk., 2007ko urriaren 23koa) formalizatu eta argitaratu zen. Batzartutakoek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea eratzeak akordioa hartu zuten.

Eratu ostean, Arbitraje Batzordeak, besteak beste, erabaki hauek hartu zituen:

AKORDIOAK

1. 2007ko uztailaren 30etik aurrera Arbitraje Batzordeari zuzendutako gatazken planteamendu-idazkiak aurkeztutzat jotzea. Ondorioz, aurkeztutzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 2008ko martxoaren 14ko idazkia, horri erantsitako agiriekin.

2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundearen (Erakundea) aurrean eginiko ikuskatze-jardueren ondoriozko gatazkari dagokionez, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 1. atalean aipatutako idazkiari erantsitako dokumentaziotik aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 129/06 zenbakiko epaia eman zuen, 2006ko otsailaren 22koa. Horren bidez, baietsi egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako errekurtsioa. Aldundiak honen kontra jarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/05/12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak

zuen errekurtsua: eskumen-gatazkaren planteamendua eta jarduerak gelditzeko Ogasun Ministerioari eginiko errekerimenduaren ustezko ezespenaren aurka. Horrez gain, Auzitegi Nagusiak, epai horren bidez, baliogabetu egin ditu aurkaratutako jarduerak, eta bestelako jarduerarik ez egiteko eta gatazka Arbitraje Batzordearen pean jartzeko beharra adierazi du.

2. Epai horren aurka Estatuko Administrazioak kasazio-errekurtsua jarri zuen. Errekurtsu hori onartu egin zuten, eta bozkatzeko eta epaia emateko zain zegoen.

Arbitraje Batzordearen iritziz, aipatutako errekurtsuari dagokionez Auzitegi Gorenak hartutako erabakiak funtsezko eragina dauka gai honi buruz Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren artean eskumen-gatazka ebazteko bidean. Izan ere, aipatutako epaian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezarritako doktrina zuzendu dezake, eta horren eskumena aitor dezake gatazka horretaz arduratzeko. Aukera horrek irmotasun handiagoa hartzen du Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 11ko 26/2008 epaia ikusita. Izan ere, epai horrek baietsi egiten du Arabako Foru Aldundiak sustatutako babes-errekurtsua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren azaroaren 15eko 862/2004 epaiaren kontrakoa; epai horrek onartezintzat jo zituen Lurralde Historiko horretako Administrazioak jarritako errekurtsuak, 129/06 epaiaren xede izan zirenen antzeko ustezko egintzen kontrakoak. Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak honetan oinarritzen du aipatutako epaia: Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea ez zen eratu eskumen-gatazka planteatu zen unean, eta, horregatik, gatazka hori ebazteko bide egokia administrazioarekiko auzien bidea zen.

Horren arabera, eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen araudiaren 9. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, hau da, kontuan hartuta “ezin izango dela gatazkarik planteatu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008	Z/g	2008/05/12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Gatazkaren onargarritasuna. Auzitegiek ebatzi dituzten gaiak edo ebatzi gabe daudenak

Justizia Auzitegiek ebatzi dituzten edo ebazteko dituzten gaien gainean", Arbitraje Batzordeak honakoa

ERABAKI DU:

1. Tramitera ez onartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko eskumen-gatazkaren planteamendua, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundearen (Erakundea) aurrean eginiko ikuskatze-jarduerekin lotuta, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak.
2. Erabaki honen berri emango zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.